

"Liburua eskuetan izatea sentrazio polita da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Bergarako liburutegian dihardu lanean Laida Zubiak orain dela hilabete ingurutik. Aurrez Debako liburutegian eta Bergarako Udal Artxi-boan egin du lan. Bere lanbideaz egin dugu berba Laidarekin.

Zein liburu daukazu mesanotxean?

Lagun batek opari egindako *Peter Pan* liburua. Azkenaldian manualak irakurtzen ditut batez ere.

Irakurtzen hasi eta amaitu gabe utzi duzun libururik?

Ez dut izenik gogoratzen, baina gustatu ezean alhora lagatzen ditut.

Bergararrek asko irakurtzen dute?

Bai. Ni arratsaldez egoten naiz liburutegian eta mugimendu nahikoa dago.

Liburutegian CDak hartzeko aukera dago. Zein musika mota entzuten duzu zuk?

Bilduma berri bat daukagu eta handik pop moderno CD bat hartu dut. Gainontzean, denetarik entzuten dut; lagunekin eta



tabernetan Alaska eta Shakira, besteak beste; etxean, berriz, Radiohead edo beste edozein talde.

Irakurtzea denbora pasatzeko modu egokia da. Aisialdian irakurtzeaz gainera, zer egitea duzu gustuko?

Lagunekin egotea, paseatzea, parranda egitea, museoren bat ikustea. Konpainia ona da aisialdirako garrantzitsuena.

Artxiboan lanean jardundakoa zara. Bizitzako zein une artxibatuko zenuke?

Bibliotekonomia ikastea erabaki nuen momentua. Gerora konturatu naiz aukera ona egin nuela.

Teknologia berriekin liburuak desagertu egingo direla uste duzu?

Ez. Liburuak esku artean izatea beti da sentrazio polita.

Gomendatu liburu bat aste bukaerarako.

Memorias de una geisha. Filma ikusi aurretik liburua irakurtzea gomendatuko nioke jendeari.